

Gradu Amaierako Lana  
Biologiako Gradua

## Aldakortasun genetikoa giza populazioetan: hautespenaren eragina 22. kromosomako geneetan

Egilea:  
Aitor Zabala Garcia  
Zuzendaria:  
Mikel Iriondo Orensanz

<b>1.1 LABURPENA</b>	<b>2</b>
<b>1.2 ABSTRACT</b>	<b>2</b>
<b>2. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>3. HELBURUA</b>	<b>4</b>
<b>4. METODOLOGIA</b>	<b>5</b>
<b>4.1- Datu-basearen eraketa</b>	<b>5</b>
<b>4.2- Hautespenaren eragina izan duten SNPen identifikazioa</b>	<b>7</b>
<b>4.3- Hautespenaren eragina izan duten geneen identifikazioa</b>	<b>7</b>
<b>4.4- APOBEC3G eta APOBEC3H geneen hautespenaren azterketa</b>	<b>7</b>
<b>5. EMAITZAK</b>	<b>8</b>
<b>6. EZTABAIDA</b>	<b>14</b>
<b>6.1- APOBEC3G eta APOBEC3H geneak:</b>	<b>14</b>
<b>6.2- Erretrobirusekiko harremana: GIB birusa</b>	<b>15</b>
<b>6.3- APOBEC3G eta APOBEC3H geneetako hautespena:</b>	<b>16</b>
<b>6.4- APOBEC3G eta APOBEC3H geneen hautespenaren zergatia</b>	<b>17</b>
<b>7. ONDORIOAK</b>	<b>18</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>19</b>
<b>9. ERANSKINAK</b>	<b>24</b>
<b>1. ERANSKINA</b>	<b>25</b>
<b>2. ERANSKINA</b>	<b>27</b>
<b>3. ERANSKINA</b>	<b>34</b>

## 1.1 LABURPENA

Giza aldakortasuna populazio baten eta populazioen arteko genomak bereizten dituzten desberdintasun genetikoen multzoa da. Giza aldakortasuna populazio arbasoen historiaren erakusle da, eta populazioek jasan duten hautespen naturala aztertzea ahalbidetzen du. Lan honen helburua izan da giza populazio desberdinaren 22. kromosomaren aldakortasuna aztertzea, eta hautespen naturalaren eragina jasan duten 22. kromosomaren geneak identifikatzea eta aztertzea. Horretarako, 1000 Genomen datubasean *Minor Allele Frequency* (MAF) 0,4 baino altuagoa zuten 22. kromosomako *Single Nucleotide Polymorphism* (SNP) hautatu ziren, eta SNP horien *fixation index* ( $F_{ST}$ ) kalkulatu ziren. Emaitzek agerian utzi zituzten hautespen naturalaren eraginpean zeuden geneak, eta populazio bakoitzak oztopoei aurre egiteko garatutako moldapenak. Aurrera begira, populazio bakoitzaren historia zehatzago ezagut dezagun, etorkizuneko ikerketek hautespenaren eraginpean dauden geneak aztertu eta hautespenaren kausak azter ditzakete. Esate baterako, APOBEC3 geneek jasan duten hautespenea aztertu zen, eta ondoriozta zen APOBEC geneek zuten aldakortasun genetikoaren eragile zela gizakia Afrikatik irten zenean topatutako erretrobirus berriak.

## 1.2 ABSTRACT

Human diversity differs within and between population genomes. It provides information about the ancestry and the natural selection's effect among populations. The objective of this work is to analyze the diversity of the 22<sup>nd</sup> chromosome in different populations, and to identify and analyze regions under natural selection for further research. For doing so, *Single Nucleotide Polymorphisms* (SNPs) with a *Minor Allele Frequency* (MAF) higher than 0.4 were chosen from the 1000 Genome Project and their *fixation indexes* ( $F_{ST}$ ) were calculated. The results uncovered genes under natural selection and the adaptations each population developed to overcome changes. Looking ahead, future studies can analyze genes under natural selection in order to clarify reasons for that selection and more information about the populations themselves. For instance, selection in the APOBEC3 genes was analyzed in this work and retroviruses were identified (found by humans in the out of Africa event) as the main responsible for the high diversity found in those genes.

## 2. SARRERA

Gizakiaren lehen aztarnak duela 200.000 urtekoak dira, eta Afrikan aurkitu dira (Day, 1969; McDougall, Brown, & Fleagle, 2005). Aztarnak horiek iradokitzen dute gizakiaren (*Homo sapiens*) sorrera Afrikako hainbat lekutan gertatu zela, eta gerora Afrikatik irten eta beste kontinenteak kolonizatu zituela. Gizaki modernoa (*Homo sapiens sapiens*) duela 100.000 urte sortu zen Etiopian (Haile-Selassie, Asfaw, & White, 2004), eta duela 65.000 urte atera zen Afrikatik (Forster, 2004; Mondal et al., 2016; Thangaraj et al., 2005). Bai Afrikan bai Afrikatik kanpo, gizakia populazioetan banatzen hasi zen.

Gizakia populazioetan banatzeko prozesu horretan mekanismo mikroebolutiboek lan egin dute. Mekanismo mikroebolutiboek aleloen maiztasun aldatzen dituzte, eta lau dira: mutazioa, jito genetikoa, gene-fluxua eta hautespen naturala. Mutazioak material genetikoan gertatzen diren aldaketak dira, eta giza populazioetan eragiten duten desberdintzapena txikia da (Hartl, Clark, & Clark, 1997), espezie nahiko berria garelako. Jito genetikoa populazioak desberdintzatzen ditu, eta gene-fluxuak, aldiz, populazioak berdintzen ditu. Oro har, prozesu horiek oreka bilatzen dute, eta genoma osoan dute eragina (Kimura, 1991).

Hautespen naturalak, ordea, gene konkretuetan du eragina, eta ingurunera hoheren moldatzen den fenotipoaren genotipoa faboratzen du. Afrikatik irtetean, egoera berriekin topatu zen gizakia, eta egoera berri horietara moldatu behar izan zuen. Alde batetik, klima-egoera eta patogeno berriekin topatu zen eta, bestetik, gizakiak garatu zituen abeltzaintzak eta nekazaritzak gizakiaren egoera aldatu zuten. Aldaketa horiek guztiekin giza genomaren eboluzioa bultzatu dute (Diamond, 2002).

Hautespen naturala populazio batean aztertzean, hiru hautespen natural mota daude: positiboa edo direkzionala, negatiboa edo purifikatzailea, eta orekatzailea. Hautespen natural positiboak alelo berria faboratzen du, negatiboak alelo berria kaltetzen du, eta orekatzaileak aleloen arteko oreka lortzen du (Barreiro et al., 2008)

Populazio asko direnean, ordea, hautespen naturala beste modu batean aztertu daiteke, bi hautespen natural mota daudelarik: dibertsifikatzailea eta orekatzailea. Hautespen natural dibertsifikatzaileak populazio batean alelo bat eta beste populazioan beste aleloa faboratzen du, eta populazioak desberdintzatzen ditu (Barreiro et al., 2008).

Hautesper natural orekatzailak, aldiz, populazioetan bi aleloak faboratuz bi aleloen arteko oreka lortzen du, eta giza populazioak berdintzen ditu. Bi prozesu horietan giza aldakortasuna sortzen da. Giza aldakortasunaren % 85 populazio barnekoa da, % 5 populazioen artekoa eta % 10 kontinenteen artekoa (Jorde & Wooding, 2004). Hortaz, kontinenteen eta populazioen artean portzentaje txikian bada ere aldakortasuna egon badago.

Giza aldakortasuna aztertzeko *fixation index* ( $F_{ST}$ ) balioa erabil daiteke, zeinak populazio barneko aldakortasuna eta populazioen arteko aldakortasuna aztertzea ahalbidetzen duen.  $F_{ST}$  balio altuak agerian uzten du aldakortasuna populazioen artekoa dela,  $F_{ST}$  balio baxuak, aldiz, aldakortasuna populazio barnekoa dela (Beaumont, 2005).

Giza aldakortasuna aztertzeko markatzaile genetikoak erabiltzen dira, horien artean, *Single Nucleotide Polymorphisms* (SNPak). Giza aldakortasunaren azterketan pausu garrantzitsua izan da giza genomaren sekuentziazio osoa lortzea. 2000. urtean, giza genoma sekuentziatza lortu zen (“A map of human genome sequence variation containing 1.42 million single nucleotide polymorphisms,” 2001; Venter et al., 2001), eta horrek hainbat proiekturi bidea ireki zion. Adibide garbia da, 1000 Genoma Proiektua, zeinak munduko eskualde desberdinako indibiduoen genomen sekuentziak biltzen dituen. Genoma horiek aztertuta, giza aldakortasuna azter daiteke.

### **3. HELBURUA:**

Lan honen helburua izan da giza populazio desberdinaren 22. kromosomaren aldakortasuna aztertzea, eta hautespen naturalaren eragina jasan duten 22. kromosomaren geneak identifikatzea eta aztertzea.

#### **4. METODOLOGIA:**

#### **4.1- Datu-basearen eraketa:**

Datu basearen eraketarako 22. kromosomako *Minor Allele Frequency* (MAF) balioa 0,4 baino altuagoa zuten SNPak bildu ziren. Lehenik eta behin, 1000 Genoma datu-basetik (<ftp://ftp.1000genomes.ebi.ac.uk/vol1/ftp/release/20130502/>) 22 kromosomako SNP guztiak hautatu ziren eta, ondoren, MAF balioa 0,4 baino altuagoa zuten SNPak hautatzeko, *VCFtools* programa (Danecek et al., 2011) erabili zen. *VCFtools* programak ahalbidetzen du komandoen bidez hainbat filtro egitea, eta MAF balioaren bidezko filtroa egiteko komando hau erabili zen: “vcftools --plink-tped --vcf *jatorrizko fitxategiaren izena.cvf* --maf 0.4 --max-maf 0.99”. Eratutako datu-baseak 14341 SNP zituen 26 populazioko (1. irudia) eta 2504 indibiduoko (1. taula)



**1. irudia:** datu-basearen 26 populazioen kokapena eta jatorria

[http://www.internationalgenome.org/sites/1000genomes.org/files/images/map\\_legend.png](http://www.internationalgenome.org/sites/1000genomes.org/files/images/map_legend.png)

**1. taula:** eratutako datu-basearen 26 populazioen kodea, izena, jatorria eta lagindutako indibiduo kopurua

Kodea	Populazioaren izena	Jatorria	N
<b>ACB</b>	Afrikar karibearrak, Barbados	Afrika	96
<b>ASW</b>	Afrika zaharreko amerikarrak, Estatu Batu mendebaldea	Afrika	61
<b>BEB</b>	Bangaliak, Bangladesch	India	86
		Asia	
<b>CDX</b>	Dai txinatarrok, Xishuangbanna	Ekialdea	93
<b>CEU</b>	Ipar eta mendebaldeko Europar zaharreko Utharrak	Europa	99
		Asia	
<b>CHB</b>	Han txinatarrok, Beijing	Ekialdea	103
		Asia	
<b>CHS</b>	Han txinatarrok, Txina hego-ekialdea	Ekialdea	105
<b>CLM</b>	Konlonbiarrak, Medellin	Amerika	94
<b>ESN</b>	Esanak, Nigeria	Afrika	99
<b>FIN</b>	Finlandiarrok, Finlandia	Europa	99
<b>GBR</b>	Britainiarrok, Inglaterra eta Eskozia	Europa	91
<b>GIH</b>	Gujarati indiarrok, Houston (Texas)	India	103
<b>GWD</b>	Ganbiarrak, mendebaldeko Ganbiako eskualdea	Afrika	113
<b>IBS</b>	Iberiar populazioa, Spainia	Europa	107
<b>ITU</b>	Telugu indiarrok, Britainia Handia	India	102
		Asia	
<b>JPT</b>	Japoniarrok, Tokio	Ekialdea	104
		Asia	
<b>KHV</b>	Kinhak, Ho Chi Minh City (Vietnam)	Ekialdea	98
<b>LWK</b>	Luhyarrak, Webuye (Kenia)	Afrika	99
<b>MSL</b>	Mendeak, Sierra Leona	Afrika	85
<b>MXL</b>	Mexikar zaharrak, Los Angeles	Amerika	64
<b>PEL</b>	Peruarrak, Lima	Amerika	86
<b>PJL</b>	Punjabiak, Lahore (Pakistan)	India	96
<b>PUR</b>	Puerto Rikokoak, Puerto Rico	Amerika	104
<b>STU</b>	Sri Lankako Tamilak, Britainia Handia	India	102
<b>TSI</b>	Toskanakoak, Italia	Europa	107
<b>YRI</b>	Yorubak, Ibadan (Nigeria)	Afrika	108

#### **4.2- Hautespenaren eraginpean zeuden SNPen identifikazioa:**

$F_{ST}$  balioa eta hari zegokion q balioa izan ziren hautespenaren eragina azterzeko kalkulatutako parametroak, eta parametro horiek *BayeScan v2.1* (Foll & Gaggiotti, 2008) programaren bidez kalkulatu ziren. *BayeScan* programa erabiltzeko, jatorrizko fitxategia, *Structure* formatuan zegoena, *GESTE/BayeScan* formatura itzuli zen *PGDSpider v2.1.1.5* (Lischer & Excoffier, 2012) programa erabiliz. Fitxategia behin formatu egokira itzulita, *BayeScan* programak  $F_{ST}$  balioak eta q balioak kalkulatu zituen. Azkenik, gene-hautespna harremana *R studio* (R Core Team, 2014) programaren bidez grafiko batean irudikatu zen, non x ardatzean q balioaren logaritmoak eta y ardatzean  $F_{ST}$  balioak irudikatu ziren.

#### **4.3- Hautespenaren eraginpean zeuden geneen identifikazioa:**

Hautespna eragina izan zuten SNPak identifikatuta, FDR zuzenketa egin zen hautespen garbia jasan zuten SNPen geneak identifikatzeko. SNP horiei zegokien geneak identifikatu ziren NCBI dbSNP datu-basearen bidez (<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/snp/>). Genearen identifikazioa egin ostean, gene bakoitzari zegokion eta hautespenaren eragina jasan zuten SNPak zenbatu ziren, eta lortutako datuak taula batean bildu ziren. Alde batetik,  $F_{ST}$  balioa altua ( $F_{ST} > 0,09$ ) eta q esangarria ( $q < 0,05$ ) zuten SNPak zituzten geneen taula egin zen eta, bestetik,  $F_{ST}$  balio baxua ( $F_{ST} < 0,09$ ) eta q esangarria ( $q < 0,05$ ) zuten SNPak zituzten geneen taula egin zen.

#### **4.4- Hautespenaren eraginpean zeuden geneen azterketa:**

Hautespna jasan zuten SNPak hautatu ziren, eta SNP horien arteko lotura-desoreka aztertu zen *HaploView v4.2* (Barrett, Fry, Maller, & Daly, 2005) programaren bidez. *HaploView* programa erabiltzeko, jatorrizko fitxategia *PED* formatura itzuli zen eta, itzulketa hori egiteko, *PGDSpider* programa erabili zen.

*HaploView* programak lotura-desorekaren neurria ( $D'$ ) eta LOD balioa erlazionatzen ditu. LOD balioa L1 eta L0 balioen arteko zatiduraren logaritmoa da, non L1 lotura-desorekan zeuden datuen probabilitatea eta L0 lotura-orekan zeuden datuen probabilitatea diren.  $D'$  eta LOD balioen arteko erlazioa koloreen arabera irudikatzen du *HaploView* programak (2. taula).

**2. taula:** LOD eta D balioen erlazioaren arabera HaploView programak erabilitako koloreak


	<b>D' &lt; 1</b>	<b>D' = 1</b>
<b>LOD &lt; 2</b>	Zuria	Urdina
<b>LOD &gt; 2</b>	Arrosa	Gorria

Hautesprenaren eragina izan zuten SNPen populazioko maiztasunak kalkulatzeko *Genepop v4.2* (Rousset, 2008) programa erabili zen eta, horretarako, jatorrizko fitxategia *Genepop* formatura itzuli zen *PGDSpider* programaren bidez. Lortutako maiztasunen taula eranskin moduan bildu zen. Bestalde, SNPen arteko lotura-desorekatik ondorioztatu ziren SNP-taldeen aleloen populazioko maiztasunak mapa batean biltzeko, *Geography of Genetic Variants Browser* (Marcus & Novembre, 2017) programa erabili zen.

Azkenik, geneen hautespna aztertzeko, NCBI datu-basea (<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/>) eta lortutako artikulu zientifikoek erabilitako bibliografia erabili zen.

## 5. EMAITZAK

22 kromosoman MAF balioa 0,4 baino handiagoa zuten 14341 SNP identifikatu ziren eta, hortaz, 35.909.864 genotipo zituen datu-basea eratu zen. 14341 SNP horietatik 5456 ziren hautespna jasan zutenak ( $q < 0,05$ ), zeintzuk 2766-k  $F_{ST}$  altua eta 2690-k  $F_{ST}$  baxua zuten. Hautespna jasan ez zuten SNPen  $F_{ST}$  balioa 0,09 zen, eta SNP horien aleloen maiztasunen desberdintasuna jito genetikoaren eta gene-fluxuaren arteko orekak eragin zuen. Aztertutako SNPen  $q$  balioaren batezbestekoa grafikoko lerro bertikalari zegokion eta 0,050 zen (2. irudia)



**2. irudia:** SNP bakoitzari zegokion  $F_{ST}$  eta q balioa erlazionatzen dituen grafikoa, non x ardatzean  $F_{ST}$  balioa eta y ardatzean q balioaren logaritmoa irudikatuta dauden.

SNP bakoitzaren hautespenaren erakusle ziren parametroen FDR zuzenketa egin zen, eta zuzenketa egin ostean hautespenaren eragin jasan zuten ( $q < 0,05$ ) 4819 SNP identifikatu ziren. Hasierako datuetatik % 88,32 izan ziren hautespen argia jasan zuten SNPak, eta 637 SNP (% 11, 68) izan ziren hautespen faltsua izan zezaketen SNPak. Hautespenaren eraginpean zeuden 4819 SNPetatik  $F_{ST}$  balio altua ( $F_{ST} > 0,09$ ) zuten 2453 SNP (% 50,90) identifikatu ziren, eta hautespen dibertsifikatzalea jasan zuten 249 gene identifikatu ziren (2. eranskina).  $F_{ST}$  baxua ( $F_{ST} < 0,09$ ) zuten 2366 SNP (% 49,10) identifikatu ziren, eta hautespen orekatzailea jasan zuten 235 gene identifikatu ziren (3. eranskina).

Hautespenaren eraginpean ( $q < 0,05$ ) zeuden geneetatik APOBEC3G eta APOBEC3H geneak hautatu eta sakon aztertu ziren. APOBEC3G eta APOBEC3H geneetan hautespenaren eragina zuten 21 SNP identifikatu ziren, eta 6 SNP APOBEC3G geneari eta 15 SNP APOBEC3H geneari zegokion. 21 SNP horietatik 14-k  $F_{ST}$  balio altua


( $F_{ST} > 0,09$ ) zuten eta 7-k  $F_{ST}$  balio baxua ( $F_{ST} < 0,09$ ).  $F_{ST}$  balio baxua zuten SNPak APOBEC3H genean zeuden (3. taula).

**3. taula:** APOBEC3 geneetan hautespenaren eragina zuten SNPei buruzko informazioa, non SNPari dagokion genea, kokapena eta  $F_{ST}$  balioa biltzen diren.

SNP	Genea	Kokapena	FST
rs7291971	APOBEC3G	39472174	0,1769
rs5757464	APOBEC3G	39475964	0,1598
rs2294367	APOBEC3G	39479574	0,1559
rs3091374	APOBEC3G	39480245	0,1425
rs2011861	APOBEC3G	39480663	0,1558
rs2413570	APOBEC3G	39481187	0,1559
rs139279	APOBEC3H	39494084	0,0392
rs139283	APOBEC3H	39495584	0,1516
rs139284	APOBEC3H	39495670	0,0486
rs139285	APOBEC3H	39495780	0,1642
rs139286	APOBEC3H	39495800	0,0479
rs139287	APOBEC3H	39495870	0,0487
rs139288	APOBEC3H	39496016	0,0460
rs139290	APOBEC3H	39496134	0,0462
rs139291	APOBEC3H	39496199	0,0459
rs3765441	APOBEC3H	39497701	0,1486
rs139301	APOBEC3H	39497811	0,1652
rs139305	APOBEC3H	39498677	0,1657
rs139310	APOBEC3H	39499015	0,1550
rs139312	APOBEC3H	39499369	0,1556
rs139317	APOBEC3H	39499902	0,1323


21 SNP horien arteko lotura-desoreka aztertu zen, eta ondorioztatu zen bi bloke nagusi zeudela, eta bloke horiek gene bakotzaren SNPak biltzen zituela. Egoera horretan, lehenengo blokean APOBEC3G genearen azkeneko 6 SNPak ageri ziren, eta bigarren blokean APOBEC3H genearen azkeneko 14 SNPak. APOBEC3G eta APOBEC3H geneen lehenengo SNPak (rs7291971 eta rs139279, hurrenez hurren) bi blokeetatik kanpo geratzen ziren (3. Irudia).

APOBEC3G genean zeuden SNPei APOBEC3H genean zeuden SNP-talde batekin lotura-desoreka harreman txikia aurkezten zuen, eta beste SNP-talde batekin, aldiz, lotura-desoreka harreman handia erakusten zuen. Hain zuzen ere,  $F_{ST}$  balioa altua ( $F_{ST} > 0,09$ ) zuen SNP-taldearekin lotura-desoreka harreman handia erakusten zuen, eta  $F_{ST}$  balio baxua ( $F_{ST} < 0,09$ ) zuen SNP-taldearekin lotura-desoreka harreman txikia (3. irudia).




**3. irudia:** APOBEC3G eta APOBEC3H geneetan hautespenaren eragina izan zuten SNPen arteko lotura-desoreka, non bi bloke nagusi bereizten ziren. Bloke bakoitzean identifikatu ziren SNPak gene bakoitzari zegokion, lehenengo blokea APOBEC3G geneari eta bigarren blokea APOBEC3H geneari, hain zuzen ere.

Bestalde,  $F_{ST}$  balio altuak ( $F_{ST} > 0,09$ ) erakusten zuten SNPen arteko lotura-desoreka harremana argiago irudikatu zen (4. Irudia), eta 3. irudian ondorioztatutako bi blokeak azaldu ziren. Lehenengo blokean, APOBEC3G genearen azkeneko 7 SNPak zeuden eta, bigarren blokean, APOBEC3H genearen 8 SNPak. Azkenik, APOBEC3G genean zegoen rs7291971 SNPa aipatutako blokeetatik kanpo ageri zen, bere geneko beste SNPekin lotura-desoreka harreman handia zuelarik.



**4. irudia:** APOBEC3G eta APOBEC3H geneetan hautespenaren eragina zuten eta  $F_{ST}$  balio alta (  $F_{ST} > 0,09$  ) zuten SNPen arteko lotura-desoreka, non bi bloke nagusi bereizten ziren. Hain zuzen ere, bloke bakoitzean zeuden SNPak gene bakoitzari zegokion.


Azertutako SNPek bi alelo zituzten, eta aleloren munduko banaketa aztertu zen.  $F_{ST}$  balio baxua ( $F_{ST} < 0,05$ ) zuten SNPei dagokienez, ez zen populazioetan alelo nagusirik ageri (5. irudia).  $F_{ST}$  balio baxua izanda, hautespen orekatzailak giza populazioetan bi aleloak izatea faboratu zuen eta, hala, populazioak oro har ez ziren argi desberdintzen, aleloren populazioen maiztasunak 0,6 eta 0,3 artean zeudelarik (1. eranskina).




**5. irudia:** rs139284 aleloren banaketa, non kolore urdina T aleloari eta laranja C aleloari dagokion

$F_{ST}$  balio altua zuten ( $F_{ST} > 0,09$ ) SNPei dagokienez, SNP guztien aleloen banaketa oro har bera zen: Afrikan alelo bat zen nagusi eta beste aleloak Asia Ekialdean zuen maiztasun handien. Europan, bi aleloak agertzen ziren, baina bi alelo horietatik Asia Ekialdeko aleloa da maizen agertzen zena. Bestalde, Amerikan ez zen aleloen banaketa argirik ikusi (6. irudia eta 7. irudia). Amerikan aleloen banaketa argia ez egotea espero zen emaitza zen. Izan ere, aztertu diren Amerikako populazioen jatorria ez da bera, hau da, badira Afrikarekin harreman handiagoa zuten populazioak eta Eurasiarekin harreman handiagoa zuten populazioak (1. taula). Harreman desberdintasun horrek eragin zuen aleloen banaketa Amerikako populazio guztiengatik bera ez izatea. Aleloen maiztasunak zehatzago ikus daitezke 1. eranskinean.

$F_{ST}$  balio altuko ( $F_{ST} > 0,09$ ) SNPetan ondorioztatutako bi blokeetako SNPen aleloen maiztasunak populazioetan irudikatzean, agerian utzi zen desberdintasunak desberdintasun bi SNPeek populazioetan zuten maiztasunak antzekoak zirela eta, era berean, Afrikatik urrundu ahala Afrikako aleloa desagertzen zihoala argi ikusi zen (6. irudia eta 7. irudia).



**6. irudia:** rs5757464 aleloen banaketa, non kolore urdina G aleloari eta laranja A aleloari dagokion



**7. irudia:** rs139305 aleloen banaketa, non kolore urdina A aleloari eta laranja C aleloari dagokion

## 6. EZTABAIDA

Lan honetan hautespen naturalaren eragina giza populazioetan aztertu nahi izan da eta, horretarako, 1000 genoma datu-basetik 22. kromosomako MAF balioa 0,4 baino altuagoa zuten SNPak hautatu ziren. Hautespen naturala hainbat populazioetan aztertzean, bi hautespen natural mota daude: dibertsifikatzailea eta orekatzaila. Hautespen natural dibertsifikatzaileak gene bateko alelo bat populazio batzuetan faboratzen du, eta beste populazioetan beste aleloa; hautespen orekatzailak, aldiz, populazioetan bi aleloak faboratzen ditu. Hautespen naturalak eragindako desberdintasunak neuritzeko  $F_{ST}$  balioak kalkulatu dira, non  $F_{ST}$  altuek ( $F_{ST} > 0,09$ ) hautespen natural dibertsifikatzailearen eragina eta  $F_{ST}$  baxuek ( $F_{ST} < 0,09$ ) hautespen natural orekatzailaren eragina islatzen duten. Hautespen naturalaren eragina jasan zuten geneetatik, APOBEC3G eta APOBEC3H geneak aztertu ziren.

### 6.1- APOBEC3G eta APOBEC3H geneak:

APOBEC3 gene-familian zazpi gene bereizten dira: ABOBEC3A, ABOBEC3B, ABOBEC3C, ABOBEC3D, ABOBEC3F, ABOBEC3G eta ABOBEC3H. Gene horiek APOBEC familiako proteinak sintetizatzen dituzte. APOBEC proteinak zitosina desaturasa entzimak dira, eta zitosina urazilora desaminatzen dute (Jarmuz et al., 2002). Mekanismo horrek funtzio antibiralak ematen dizkio geneari (Jarmuz et al., 2002). Izan ere, erretrobirusen genomako uraziloak desaminatzean, genoma birikoa hipermutatzea eta

degradatzea eragiten du eta, ondorioz, erretrobirusak, erretrobirus endogenoak eta erretrotransponak inhibitzen ditu (H. P. Bogerd, 2006; Hal P. Bogerd et al., 2006; Esnault et al., 2005; Esnault, Millet, Schwartz, & Heidmann, 2006)

Gizakian ez ezik, ardi latxan eta asaaf arditean ere APOBEC3 geneek erretrobirusekin duten harremana aztertu da. APOBEC3 genearen A3Z1 genean polimorfismoak aurkitu dira, eta bi SNP polimorfikoen aleloen banaketa aztertuz, bi SNP Visna/Maedi gaixotasun erretrobirikoarekin erlazionatu dira. (Esparza-Baquer et al., 2015). Harreman horrek, APOBEC3 geneek erretrobirusekin duten harremana sendotzen du.

Bestalde, erretrobirusekin ez ezik APOBEC3G eta APOBEC3H geneek birusekin duten erlazioa aztertu da, Hepatitis B birusarekin duen erlazioa, esate baterako. Ikerketek agerian utzi dute APOBEC3 geneak Hepatitis B birusaren hazkundea inhibitzen duela, eta giza populazioko APOBEC3 geneen aldakortasun genetikoaren eragileetako bat dela (Kidd, Newman, Tuzun, Kaul, & Eichler, 2007). Gauzak horrela, baliteke erretrobirusak ez ezik birusen hazkundea inhibi dezaketela eta, hartara, APOBEC3 geneek birusekin duten harremana uste baino handiagoa izatea. Hala ere, birusen eta APOBEC3 geneen arteko harremana ez da gene horiek erretrobirusekin duten harremana adinako sendoa eta, hortaz, nahiz eta birusak kontuan hartuta izan behar ditugun, ezin dira gure lanaren ardatza izan.

## **6.2- Erretrobirusekiko harremana: GIB birusa**

Erretrobirusei buruz hitz egitean *Giza Immunoeskasiaren Birusa* (GIB) aipatu behar da derrigorrez, eta APOBEC3 geneak GIB birusarekin maiz erlazionatu dira, gainera. GIB birusak *Hartutako Immuno Eskasairen Sindromea* (HIES) eragiten du, eta gaur egun hainbat eragiten dion gaixotasuna da. HIESak immunitate-sistema ahultzen du, eta horren eraginez gaixotasun oportunistak pairatzeko probabilitatea handitzen da, tuberkulosia kasu. Bi HIES mota bereizten dira, 1. motakoa eta 2. motakoa.

GIB birusaren lehen aztarnak 1980ko hamarkadakoak dira. Ikerketen arabera, 1. motako HIE-a txinpantzeetatik gizakira 1920ko hamarkadan pasa zen gaur egun den Kongoko Errepublika Demokratikoko eskualdeetan (Gao et al., 1999; Rambaut, Robertson, Pybus, Peeters, & Holmes, 2001). Transmisio horren eragile nagusia txinpantzeen ehiza izan zen (Sharp & Hahn, 2011). Izan ere, ehizatzen ziren txinpantze horiek jan egiten ziren maiz eta, gainera, ehiza horretan sortutako zauriek txinpantzearen arteko odolarekiko kontaktua ahalbidetzen zuten. 2. motako HIESa txinpantzeetatik transmititu beharrean,

mangabey tximino grisetatik izan zen eta 1. motako HIESaren transmisio bera izan omen zuen (Chen et al., 1997).

Gizakiak birusa eskuratu zuenean, beste eskualdeetara zabaldu zen eta, gaur egun, 1. motako HIESa kontinente guzietan zabalduta dago. 2. motako HIESak, ordea, ez du infekzio-gaitasuna hain handia eta, horregatik, ez die pertsona askori eragiten eta Afrika Mendebaldeko herri batzuetan soilik aurkitu daiteke, besteak beste, Malin, Mauritanian, Nigerian eta Sierra Leonan (Sharp & Hahn, 2011).

APOBEC3G eta APOBEC3H geneen funtzió antibirala ikusita, hainbat ikerlarik gene horien eta GIB birusaren arteko erlazioa aztertu dute, eta ondorioztatu dute hautespen naturalak eragina izan duela gene horiengana (Cagliani et al., 2011; Esnault et al., 2005; Zhang & Webb, 2004). Gainera, GIB birusaren eta primateen arteko erlazioa aztertuta, ondorioztatu da APOBEC3G genea primateetan duela 30 milioi urtetatik hautespen natural gogorraren eraginpean dagoela (Sawyer, Emerman, & Malik, 2004).

GIB birusaren Vif proteina ez da infekziosoa APOBEC3G genearen presentzian (Mangeat et al., 2003), baina arazoa da GIB birusak APOBEC3G geneari aurre egiteko mekanismoak garatzen dituela entzimen proteosomak degradatz (Marin, Rose, Kozak, & Kabat, 2003; Stopak, de Noronha, Yonemoto, & Greene, 2003). Hortaz, APOBEC3 geneen eta birusaren arteko lehia gertatzen ari da gaur egun.

GIB birusarekin laburbilduz, APOBEC3G eta APOBEC3H, eta GIB birusaren artean harreman zuzena dago, zeinak APOBEC3G eta APOBEC3H geneak hautespen naturalaren eraginpean jartzen dituen. HIESa duela 100 urte agertu zen gizakian eta, ondorioz, ezin da gene horien aleloren banaketaren eragile nagusia izan. Hala ere, primateen eta GIB birusaren arteko erlazioa APOBEC3G genearekin aztertzean, agerian utzi da duela 30 milioi urtetatik hautespen natural gogorraren eraginpean egon dela eta, hortaz, gaur eguneko primateen APOBEC3G genearen aleloren banaketan eragina izan duela ondorioztatu da (Sawyer et al., 2004).

### **6.3- APOBEC3G eta APOBEC3H geneetako hautespena:**

APOBEC3G eta APOBEC3H geneetan hautespena jasan duten SNPen  $F_{ST}$  balioa ez da bera eta, egoera horretan, hautespenak desberdin eragin du SNPeten.  $F_{ST}$  balioa alta ( $F_{ST} > 0,05$ ) duten SNPek populazioen arteko desberdintasunak sendotu dituzte, hau da,

hautespen dibertsifikatzaileak populazioak desberdindu ditu. FST balio baxua ( $F_{ST} < 0,05$ ) duten SNPekek, aldiz, populazioen barruko desberdintasunak eragin dituzte, hau da, hautespen orekatzzaileak populazioen barruko indibiduoak desberdindu ditu.

#### **6.4- APOBEC3G eta APOBEC3H geneen hautespenaren zergatia:**

Gizakia duela 60.000 urte Afrikatik irten zen (Forster, 2004; Mondal et al., 2016; Thangaraj et al., 2005), eta jakina da gizakia Afrikatik irten zenean patogeno berriekin topo egin zuela, eta patogeno berrien erlazioak giza genoma aldaraztea eragin zuela. Alelo berriak sortu ziren, eta hautespen naturalak patogeno horietara hobeto moldatu zen aleloa faboratu zuen. Gainera, azken ikerketek agerian utzi dute birusek uste baino eragin handiagoa izan zutela giza genomaren aldaketan, hain handia non proteinen adaptazioen eragilerik handienak birusak direla proposatu den, proteinen adaptazioen % 30 eragiten dutelarik. (Enard, Cai, Gwennap, & Petrov, 2016)

Egoera horren aurrean, eta APOBEC3G eta APOBEC3H geneen funtzió antibirala aztertuta, ondorioztatu da APOBEC3G eta APOBEC3H geneen hautespenaren dibertsifikatzailearen eragilea erretrobirusak izan zirela. Gizakia Afrikatik irten zenean, erretrobirus berriekin topatu zen, eta haiei aurre egiteko erretrobirusen aurka egiten zuten proteinek adaptazio berri bat garatu zuten. Proteinen adaptazio horrek ahalbidetu zuen alelo berriaren nagusitasuna, Asian nagusi den aleloaren nagusitasuna, alegia.

Alelo berria Afrikatik kanpo sortu zenean, alelo hori zuten indibiduoak faboratu zituen, eta arrakasta handiagoa lortu zuten. Arrakasta horrek indibiduo horien eta haien ondorengoen iraunkortasuna handiagotu zuen eta, horregatik, alelo berriak belaunaldiz belaunaldi transmititu eta nagusitu zen. Gaur egun, alelo berriak dirau.

